NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia Iruña, 2020ko otsailaren 5a 17. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Artikuluei eta partidei aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.

ARTIKULUEI ETA PARTIDEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluak ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuko artikuluei aurkezturiko zuzenketak, eta partzialki argitara daitezen haren partidei aurkeztutako zuzenketak. Foru Lege proiektua 2020ko urtarrilaren 14ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

EUSKAL HERRIA BILDU
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikuluko 1. apartatuari beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Kreditu-gehikuntzak.

«010001 01000 1000 921102 “Jardunbide egokien Bulegoa”».

Zioak: Aurreko legegintzaldian onetsitako foru legea betetze aldera, beharrezkoa da partida zabalgarri hau sortzea, hura ezartzeko.

2. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
ETA **GEROA BAI**
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA **PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

5. artikuluko 3. apartatuari beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Kreditu-gehikuntzak.

«h) bis 220004 221000 4400 452100 partida, “Transferentzia arrunta, INTIA” izenekoa».

Zioak: Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiaren urriaren 31ko 142/2019 Ebazpenaren bidez, Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren titularrarengan eskuordetu ziren Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriko interes orokorreko azpiegiturak eraiki eta ustiatzea arautzen dituen azaroaren 22ko 12/2005 Foru Legearen 3. b) artikuluan xedatutakoaren arabera Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritza Nagusiaren titularrari zegozkion eskumenak, Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren 1. faseko interes orokorreko azpiegiturak eraiki eta ustiatzeko herrilanen emakida kontratuan dituenak.

Ebazpen berean esaten zenez, INTIA SA sozietate publikoak kontratuaren exekuzioaren alderdi guztien berri emanen die Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari eta Lurralde Kohesiorako Departamentuari, bai eraikuntza fasean bai ustiatze fasean.

Horretan oinarrituta eta zuzendaritza nagusien eta INTIAren arteko eskumenen eskuordetzearen eta harreman finantzarioen arabera, beharrezkoa da Nafarroako Aurrekontu Orokorrei –zehazki, Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiari– gastuetako partida bat gehitzea, Nafarroako Ubidearen 1. fasea zabaltzeko kontratuaren exekuzioa dela-eta INTIAk egindako gastuari aurre egiteko. Une honetan ez denez ezagutzen zenbateko diru kopurua beharko den, proposatzen da 10 euroko kopuru sinboliko bat jartzea eta testu artikuludunean jasotzea partida hori zabalgarria izanen dela.

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
ETA **GEROA BAI**
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA **PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

5. artikuluko 6. apartatuari beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Kreditu-gehikuntzak.

«i) bis 543000 52200 6057 312802 “Kirurgia-tresnak”».

Zioak: Kirurgia-tresnak, beren izaera ekonomikoa dela eta, 6. kapituluko inbertsio gisa sailkatzen dira. Hala ere, ebakuntza-gelako jardueran 2. kapituluko beste edozein partidaren portaera bera dute. Izan ere, tresna horiek ez berrezartzeak eragin zuzena du ebakuntza-gelako jardueran. Hondatutako tresnen berrezarpen kontrolatuaz ari gara. Beharrezkoa da partida hori sortzea eta zabalgarri gisa izendatzea, finantzaketa ematea eta aurrekontuen bidez partida horretan eragina izan ahal izatea osasun laguntza bermatzen duten beste partida batzuetan bezala, betiere kudeaketa egokia egin ahal izateko.

4. ZUZENKETA

EUSKAL HERRIA BILDU
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikuluko 7. apartatuari beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Kreditu-gehikuntzak.

«j) bis 74001 74100 7609 425200 “Nafarroako Funts Klimatikoa”».

Zioak: Partida zabalgarri hau sortzen da, laster Nafarroako klima aldaketari buruzko foru legea onetsiko dela aurreikusita, Nafarroako Funts Klimatikoa eratzeko eta berotegi efektuko gasen isuria murriztea eta isuri horiek osasunean eta ingurumenean duten eragin kaltegarriari aurre egitea xede duten neurriak finantzatzeko.

5. ZUZENKETA

EUSKAL HERRIA BILDU
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikuluko 8. apartatuari beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Kreditu-gehikuntzak.

«d) bis 810007 81220 7400 231B19 “NASUVINSArekiko hitzarmena. Legasako industrialdea handitzea”».

Zioak: Legasako industrialdeak 200.000 m2-tik gorako azalera du eta badu aukera beste 30.000 m2 erabiltzeko, gaur egun Arcelor Mital-en jabetzakoak direnak. Horrekin lotuta, Nafarroako Parlamentuak mozio baten bidez bere babesa adierazi zion lurzoru hori aktibatzeko proposamenari eta Nafarroako Gobernuak elkarrizketak hasi zituen enpresarekin, gaserako, uren arazketarako eta goi tentsioko linearako sarbidea duen lurzoru hori aktibatzeko xedearekin.

Hori dela eta, eta kostuaren zenbatekoa aldeek lortzen duten akordioaren araberakoa izanen denez, partidan 10 euroko zenbateko sinbolikoa jarriko da, behin akordioa lortu eta baldintzak ezarritakoan beharrezkoak diren aurrekontu aldaketak egin eta partida diru kopuru egokiaz hornitzeko.

6. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikuluko 9. apartatuari beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Kreditu-gehikuntzak.

«h) bis “Esku-hartze Sozialeko Hitzarmena” izeneko partida».

Zioak: Partidak zabalgarria izan behar du etorkizuneko Esku-hartze Sozialeko Hitzarmenak beharrezkoa izanen duen finantzaketa estaltzeko.

7. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikuluko 9. apartatuari beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Kreditu-gehikuntzak.

«n) bis “Aitatasun/amatasunagatiko prestazioak parekatzea” izeneko partida».

Zioak: Aurrekontuaren zuzenketa onetsiz gero, gurasoek foru legearen aplikazioan jasotako urtebete baino gutxiagoko seme-alaben zaintzagatiko kotizaziopeko prestazio-aldiak parekatzea eskubide subjektibo bilakatuko litzateke eta partida zabalgarri bat beharko litzateke.

8. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikuluko 9. apartatuari beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Kreditu-gehikuntzak.

«n) bis 920006 93300 4809 231507 Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak».

Zioak: Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzko foru lege baten balizko onespenetik eratorritako partida hau zabaltzeko zuzenketa onetsiko balitz, eszedentziarako eta lanaldi-murrizketarako laguntzak eskubide subjektibo bilakatuko dira eta partida zabalgarri bat beharko da.

9. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikuluko 9. apartatuari beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Kreditu-gehikuntzak.

«p) bis Enplegu Plana (partida sortu berria)».

10. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

14. artikuluko 8. apartatua kentzeko zuzenketa. Abalak eta maileguak ematea.

Zioak: Betetze aldera 10/2014 Foru Legea, maiatzaren 16koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duena.

11. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu berri bat gehitzeko zuzenketa:

«22. bis artikulua. Funts mugimenduak Eskuhartze Sozialeko Hitzarmenagatik.

Eskubide Sozialetako Departamentuko pertsona titularrak baimendu ahalko ditu "Esku-hartze Sozialeko Hitzarmena" deituriko partidaren eta ondoko partiden artean egiten diren funts mugimenduak: 900003 91600 2279 231500 "Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioa", 900003 91600 2600 231600 "Ingurune irekiko akonpainamendu sozialerako kontratua", 900003 91600 2600 231602 "Gizarteratzeko egoitza-zerbitzuaren kudeaketa", 900003 91600 2600 231603 "Gizarteratze eta laneratzerako zerbitzuetako kontratuak", 900003 91600 2600 231604 "Etxebizitzaren arloko gizarteratze-zerbitzuaren kontratuak", 9200008 93300 2269 231702 "Ekintzak haur eta gazteen arloan", 9200008 93300 2600 231702 "Familia adoptatzaile eta familia hartzaileentzako baliabideak", 9200008 93300 2600 231703 "Asistentzia adingabekoentzat", 9200008 93300 2600 231705 "Adopzioaren aurretiko prestakuntza".

Zioak: Esku-hartze Sozialeko Hitzarmenaren aplikazioa ahalbidetzeko.

12. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
ETA **GEROA BAI**
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA **PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

39. artikulua aldatzeko zuzenketa. Gehikuntza izan dezaketen krediduen kudeaketa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan.

39. artikuluak honako testu hau izanen du:

«Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzaileak baimena ematen ahalko du funtsmugimenduak egiteko 54. programa multzoko aurrekontu-partiden eta gaitu beharreko partiden artean, baldin eta lehenbizikoek gehikuntza izan badezakete foru lege honen 5. artikuluko 6. apartatuko a), f), g), i) eta j) letretan adierazitakoaren arabera».

Zioak: 540005 52531 4809 313100 "Farmaziako prestazioak" izeneko partida 4809 kodetze ekonomikoa dauka, baina lotura zuzena du 2215 kodetzearekin (botikak). 4809 kodetzearen justifikazioa da ordainketa hirugarren bati egiten zaiola, erosketa ez baita O-NOZetik zuzenean egiten. Partida horri egotzitako gastuaren zati handiena (ehuneko 95 baino gehiago) Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofizialari egiten zaion hileko ordainketei dagokie. Halaber, 540005 52531 4809 313102 "Xurgatzaileak eta beste produktu sanitario batzuk" partidaren kargura kontabilizatzen dira nagusiki Farmazialarien Elkargo Ofizialari eginiko hileko ordainketak, herritarrei errezetatu eta erabiltzaileek ez finantzaturiko xurgatzaile eta beste produktu sanitario batzuen gastutik eratorriak.

Partida horrek 4809 kodetze ekonomikoa du, baina baina lotura zuzen-zuzena du 2216 kodetzearekin (kontsumitzeko osasun alorreko materiala). 4809 kodetzearen justifikazioa da ordainketa hirugarren bati egiten zaiola, erosketa ez baita O-NOZetik zuzenean egiten.

Kirurgia-tresnak, beren izaera ekonomikoa dela eta, 6. kapituluko inbertsio gisa sailkatzen dira. Hala ere, ebakuntza-gelako jardueran 2. kapituluko beste edozein partidaren portaera bera dute. Izan ere, tresna horiek ez berrezartzeak eragin zuzena du ebakuntza-gelako jardueran. Hondatutako tresnen berrezarpen kontrolatuaz ari gara. Beharrezkoa da partida hori sortzea eta zabalgarri gisa izendatzea, finantzaketa ematea eta aurrekontuen bidez partida horretan eragina izan ahal izatea osasun laguntza bermatzen duten beste partida batzuetan bezala, betiere kudeaketa egokia egin ahal izateko.

13. ZUZENKETA

EUSKAL HERRIA BILDU
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

40. artikuluko 4. apartatua kentzeko zuzenketa. Sindikatuak eta enpresaburuen elkarteak.

Zioak: Talde parlamentario honek aurkeztutako beste zuzenketa batzuekin bat etortzeko.

14. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

53. artikulua aldatzeko zuzenketa. Nafarroako Ubidearen Eremu ureztagarria handitzeko 1. faserako kontratua.

Hona testu berria:

Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriko interes orokorreko azpiegiturak eraiki eta ustiatzea arautzen dituen azaroaren 22ko 12/2005 Foru Legearen 3.1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat, Lurralde Kohesiorako Departamentuari dagozkio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak dituen eskumenak, Nafarroako Ubideko eremu ureztagarria handitzeko 1. faseko interes orokorreko azpiegiturak bere osotasunean eraiki eta ustiatzeko eta Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriko bigarren fasearen proiektua idatzi eta exekutatzeko herri-lanen emakida kontratuan dituenak, salbu eta lurzatiak biltzeko prozesuei eta sektore edo eremu bakoitza ureztatzen hasteko adierazpenei eta haien aldaketei dagozkienak. Emakida kontratuaren obra proiektuen eta haien aldaketen onespen administratiboa Lurralde Kohesiorako Departamentuak eginen du.

Zioak: Beharrezkoa da Lurralde Kohesiorako Departamentuari esleitzea lehen fasearen exekuzio osoaren titulartasuna, bai eta Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriko bigarren fasearen proiektuaren idazketa eta exekuzioa ere.

15. ZUZENKETA

EUSKAL HERRIA BILDU
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hamaikagarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Aldi baterako kontratua duten medikuen eta fakultatibo espezialisten esklusibotasun araubidea.

(...) «Salbuespeneko neurri hori aplikatuko da betetzen zailak diren espezialitate eta lanpostuetan; zerbitzuak hori justifikatzen duen txostena egin beharko du aldez aurretik, eta kontratuek urtebete baino gutxiagoko iraupena izan beharko dute».

Zioak: 2019ko testua berreskuratzea. Neurriaren salbuespenezko izaera bermatzea.

16. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

«Hamabigarren bis xedapen gehigarria.

Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen Jarduketa Planetik eratorritako aldi baterako osagarria.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen Jarduketa Planetik eratorritako aldi baterako osagarriaren hileko zenbatekoak ondokoak izanen dira, langileak zein kidegoetakoak diren aintzat hartuta.

Kudeaketa Prozesal eta Administratiboa: 771,95 euro.

Izapidetze Prozesal eta Administratiboa: 604,73 euro.

Laguntzaile judizialen kidegoa: 569,10 euro».

Zioak: Proposatzen dugun zuzenketa programa bereko partiden doitze soil bat besterik ez da eta ez dakar gastu-gehikuntzarik; horrenbestez, ez dago inongo lege oztoporik horretarako.

17. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

«Hamabigarren bis xedapen gehigarria.

Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 57. artikulua aldatu eta 11. apartatu berri bat gehitzen zaio. Honela idatzita geldituko da:

"11. Arau honetan jasotako bateraezintasunei buruzko araubidetik kanpo geratzen dira ondoko jarduerak:

a) Norberaren edo familiaren ondarea administratze hutsetik eratorriak.

b) Mintegiak zuzentzea edo ikastaroak edo hitzaldiak ematea funtzionarioen edo irakasleen prestakuntzarako zentro ofizialetan, iraunkorrak edo ohikoak ez direnean eta urtean gehienez ere 75 ordu egiten dutenean, bai eta funtzio publikoan sartzeko prestakuntza-jarduerak ere, erregelamendu bidez ezartzen diren kasuetan eta moduan.

c) Administrazio publikoetan sartzeko hautaprobetako epaimahaietan parte hartzea.

d) Irakasleek normalean dagozkienak ez diren azterketa, proba edo ebaluazioetan parte hartzea, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

e) Mutualitate edo funtzionarioen patronatuetako lehendakari, kide edo zuzendaritza-taldeko kide izatea, betiere ordainsaririk ez bada jasotzen.

f) Sorkuntza eta produkzio literario, artistiko, zientifiko eta teknikoa, bai eta horietatik eratorritako argitalpenak, betiere ez badira lan-harreman edo zerbitzu emate baten ondorioz sortuak.

g) Aldian behin hedabideetako solasaldi eta programetan parte hartzea; eta

h) Aldian behin izaera profesionaleko kongresu, mintegi, hitzaldi edo ikastaroetara joatea eta bertan parte hartzea"».

Zioak: Bateraezintasunei buruzko araubidea espresuki mugatzea eta bertan sartzea Estatuko araubidean jasotzen diren arau berberak, interpretazio eta aplikazio arazoak eta kasu horietan foru funtzionarioek pairatzen duten justifikaziorik gabeko diskriminazioa saihesteko. Foru araubidearen eta Estatukoaren artean bada azalpen handirik ez duen desberdintasun bat. Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 19. f) artikuluak xedatzen duenez, bateraezintasun-araubidetik salbuetsita daude, besteak beste, sorkuntza eta produkzio literario, artistiko, zientifiko eta teknikoa, bai eta horietatik eratorritako argitalpenak, betiere ez badira lan-harreman edo zerbitzu emate baten ondorioz sortuak". Hala, oro har eta beren eginkizunak betetzea eragozten edo kaltetzen ez badu edo beren inpartzialtasuna konpromisoan jartzen ez badu, enplegatu publikoek askatasunez izan dezakete izaera literarioko sorkuntza-jarduera. Nafarroan, berriz, Foru Komunitateak funtzio publikoaren alorrean dauzkan eskumen historikoen ondorioz, arau hori ezin da zuzenean aplikatu. Nafarroako funtzionarioen bateraezintasunak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 57. artikuluan arautzen dira. Arau horretan ez da salbuespenik egiten sorkuntza eta produkzio literario, artistiko, zientifiko eta teknikoari dagokienez eta, horrenbestez, jarduera horiek bateraezintasun-araubide orokorraren menpe daude.

18. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

«Hamabigarren bis xedapen gehigarria.

Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea aldatzen da eta hamaseigarren xedapen gehigarri bat gehitzen zaio. Testu hau izanen du:

"Hamaseigarren xedapen gehigarria.

Foru lege honetan arututako pentsio, dirulaguntza eta gainerako prestazioak bateragarriak izanen dira sorkuntza eta produkzio literario, artistiko, zientifiko eta teknikotik, bai eta horiek sorburu dituzten argitalpenetatik eratorritako egile-eskubideak jasotzearekin, betiere ez badira lan-harreman edo zerbitzu emate baten ondorioz sortuak"».

Zioak: Ahalbidetzea pentsiodunen prestazioak bateragarriak izan daitezen lehenago edo ondoren sorkuntza eta produkzio literario, artistiko, zientifiko eta teknikotik, bai eta horiek sorburu dituzten argitalpenetatik eratorritako egile-eskubideak jasotzearekin, betiere ez badira sektore publikoan edo pribatuan lanpostu bat betetzearen ondorioz sortuak, jarduera partikular eta noizbehinkako baten ondoriozkoak baizik.

Martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeak, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen –hau da, 1992 baino lehenago funtzio publikoan sarturikoena– eskubide pasiboen araubide iragankorra arautu zuenak, bateraezintasun-araubide zorrotza ezartzen du 36. eta 40. artikuluetan, halako moduz non erretiro-pentsio bat jasotzea bateraezina baita sektore publikoan nahiz pribatuan beste jarduera bat izatearekin.

Hala, oro har, araubide horren arabera erretiroa hartutakoek ezin dute irabazizko jarduerarik egin, ezta sorkuntza artistiko edo literariokorik ere, pentsioaren etetea ekarriko bailuke. Soilik egin ditzakete halako jarduerak baliaezintasun absolutu edo handiagatiko pentsiodunek, eta horrek ez du zentzu handirik.

Araubide horren aplikazioak diskriminazio nabarmena dakar Gizarte Segurantzako erretiratuekin alderatuz gero. 2017an Diputatuen Kongresuan abian jarri zen Artistaren Estatutua prestatzeko Azpibatzordea eta 2018ko ekainean talde parlamentario guztiek aho batez onetsi zuten proposamenak eta gomendioak jasotzen zituen txostena. Ondoren onetsi zen Arte sorkuntzari eta zinematografiari buruzko presako neurriak onesten dituen abenduaren 28ko 26/2018 Errege Lege Dekretua, Erretiro kotizaziopeko pentsioen eta arte-sorkuntzako jardueraren bateragarritasuna arautzen duen apirilaren 26ko 302/2016 Errege Dekretuak garatzen duena. Beraz, une honetan Gizarte Segurantzako pentsiodunek sorkuntza jarduera bat garatzen jarrai dezakete eta jarduera horri dagozkion egile-eskubideak jaso ditzakete, bai eta LGSaren zenbatekoa gainditzen badute ere –hori da lehen ezarrita zegoen muga–. Neurri horren aplikazio eremutik at geratu dira oraingoz Estatuko Klase Pasiboen Araubideko pentsiodunak eta lanerako ezintasunagatiko pentsiodunak, baina orain hasten den legegintzaldian haien egoera parekatzeko konpromisoa hartu du Espainiako Gobernuak.

19. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

«Hamabigarren bis xedapen gehigarria.

Aldatu egin da Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 18 artikulua. Honela gelditu da:

"18. artikulua. Lizitatzailearen kaudimen ekonomiko eta teknikoa beste enpresa batzuen erreferentziaren bidez baloratzea.

Bere kaudimena frogatzeko, lizitatzailea beste enpresa batzuen kaudimenean oinarritzen ahalko da, haiekin dituen loturen izaera juridikoa edozein dela ere.

Sozietate-talde batean gailen diren pertsona juridikoen kasuan, kontuan hartzen ahalko dira taldeko sozietateak, betiere pertsona juridiko gailenek frogatzen badute egiazki dituztela eskueran sozietate horien bitartekoak, kontratuak exekutatzeko beharrezkoak direnak.

36. artikuluan arauturiko arrazoi sozialengatik erreserbatutako kontratuen kasuan, lizitatzailea laneratzeko eta gizarteratzeko enpresa bat baldin bada, kaudimen gisa aurkeztu ahalko du Gizartetik bazterturik dauden pertsonei zuzendutako gizarteratze eta laneratze egitarauak garatzeko laguntza ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 26ko 130/1999 Foru Dekretuaren edota beste autonomia erkidego batzuetan aplikatzekoak diren arauen babesean sorturiko laneratze eta gizarteratze zentro gisa zeukana. Hala, lizitatzaileak Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren edo halako zentroak sailkatu eta erregistratzen dituen administrazio-organoaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, eta bertan jasoko da laneratzeko eta gizarteratzeko enpresak jarraitzen duela laneratze eta gizarteratze zentroak garatutako jarduerarekin.

Kaudimena azpikontratazioaren bitartez frogatzen denean, lizitatzaileak agiri bat aurkeztu beharko du, azpikontratistekin kontratu-exekuziorako konpromiso formala dagoela frogatzeko, eta kasu horretan haien guztien kaudimena metatu eginen da. Halaber, 16. eta 17. artikuluetan ezarritako moduan eta baldintzetan frogatu beharko du azpikontratistek badituztela kontratua exekutatzeko behar diren baliabideak"».

Zioak: Zuzenketa hau proposatzen da lizitazioetan gizarteratze enpresei eskatzen zaien kaudimen tekniko eta ekonomikoarekin lotuta sor daitezkeen arazoak konpontze aldera. Laneratze eta gizarteratze zentroa gizarteratze zentro bihurtzean entitatean aldaketa bat gertatzen denez –izena, identifikazio fiskala eta abar aldatzen dira–, litekeena da aurretik laneratze eta gizarteratze zentro gisa zuen kaudimena ez aitortzea. Hori dela eta, proposatzen da artikulu hori aldatzea, ziurtatze aldera kaudimen hori aintzat hartuko dela Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak emandako ziurtagiriaren bidez.

20. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

«Hamabigarren bis xedapen gehigarria.

2020 urterako, mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta haien zaintzaileak kontratatzeko laguntza ekonomikoen gehienezko zenbatekoak, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onesten duen ekainaren 17eko Foru Dekretuaren I. eranskineko B 19 fitxan aurreikusitakoak, hauexek izanen dira:

– Mendekotasun handia duten pertsonentzako zerbitzua kontratatzeko laguntza ekonomikoa: hilean 80 ordurako gutxienez langile bat edo zerbitzuen enpresa bat kontratatzea.

Gehienekoa: 829,23 euro hilean.

– Mendekotasun larria duten pertsonentzako zerbitzua kontratatzeko laguntza ekonomikoa: hilean 80 ordurako gutxienez langile bat edo zerbitzuen enpresa bat kontratatzea.

Gehienekoa: 656,21 euro hilean.

– Mendekotasun moderatua duten pertsonentzako zerbitzua kontratatzeko laguntza ekonomikoa: hilean 60 ordurako gutxienez langile bat edo zerbitzuen enpresa bat kontratatzea.

Gehienekoa: 329,16 euro hilean».

Zioak: Besterik gabe aplikatuko balitz mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta haien zaintzaileak kontratatzeko laguntza ekonomikoen gehienezko zenbatekoen KPI bidezko eguneratzea, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onesten duen ekainaren 17eko Foru Dekretua garatzen duen Foru Aginduak aurreikusten duen moduan, onetsi berri den LGSaren igoera nabarmena delaeta, laguntza eguneratu ordez egiazki haren zenbatekoa murriztu eginen litzateke. Hori dela eta, bidezkoa da ehuneko 5,5 eguneratzea.

21. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

«Hamabigarren bis xedapen gehigarria. Enplegu Planaren funtsen kudeaketa.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatuko ditu Enplegu Planaren funtsak Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuarekin lankidetzan, departamentu bakoitzak aipatu Enplegu Planarekin lotuta esleituta dituen eginkizunen arabera.

Zioak: Nafarroako Enplegu Zerbitzuari eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuari errazte aldera beren eskumenen arabera Enplegu Planaren garapen-esparruan erabili behar dituzten baliabide ekonomikoen kudeaketa.

22. ZUZENKETA

EUSKAL HERRIA BILDU
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

«Hamabigarren bis xedapen gehigarria.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritzak “Toki inbertsioen plana, libreki erabaki beharrekoa, 10.000 biztanletik beherako udalerrietarako-Despopulazioaren aurka borroka” izeneko partidako zenbateko banatuko du, ondoko irizpideen arabera:

1. 10.000 biztanletik beherako udalerriak soilik izan ahalko dira onuradunak. Kontuan hartu beharreko populazio zifra ofizialak izanen dira abenduaren 20ko 743/2019 Errege Dekretuak, 2019ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren berrikusketaren ondoriozko populazio zifrak ofizialak deklaratzen dituenak, onetsitakoak.

2. Honako hauek izanen dira jasoko diren zenbatekoak:

a) 2.000 biztanle baino gutxiagoko 212 udalerriek: 16.518 euro udalerri bakoitzak, 3.501.816 euro guztira.

b) 2.000 biztanle edo gehiagoko eta 3.000 biztanle baino gutxiagoko 23 udalerriek: 26.000 euro udalerri bakoitzak, 598.000 euro guztira.

c) 3.000 biztanle edo gehiagoko eta 10.000 biztanle baino gutxiagoko 25 udalerriek: 36.000 euro udalerri bakoitzak, 900.000 euro guztira.

3. Jarduketa finantzagarriak izanen dira udalerri onuradun bakoitzak erabakitzen dituenak hurrengo apartatuetan jasotzen direnetik:

a) Despopulazioaren aurkako borrokarako inbertsioak.

b) Gastu-aurrekontuko sailkapen ekonomikoko 6. kapituluan kontabilizatu beharreko beste jarduketa batzuk.

4. Toki entitate onuradunen eta horiek jaso beharreko zenbatekoen zerrenda Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritzaren ebazpen bidez onetsiko da, eta jarraian ordainketa osoa eginen da.

5. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza gaitzen da “Toki inbertsioen plana, libreki erabaki beharrekoa, 10.000 biztanle-

tik beherako udalerrietarako-Despopulazioaren aurka borroka" izeneko partida betetzeko beharrezkoak diren xedapenak onesteko.

Zioak: Beharrezkoa da 10.000 biztanletik beherako udalerrietan despopulazioaren aurka borroka egiteko inbertsioak biziberritzeko.

23. ZUZENKETA

EUSKAL HERRIA BILDU
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

«Hamabigarren bis xedapen gehigarria.

"Nafarroako Gobernuak, aplikatzekoa den Estatuko araudia galarazi gabe, Nafarroako pentsioen zenbatekoen benetako egoerari buruzko azterketa bat eginen du sei hilabeteko epean, kontuan hartuta Nafarroan jada gaituta dauden osagarri fiskalen bideak aintzat hartuta. Halaber, aztertu beharko du aurrekontuetan izanen lukeen eragina pentsio baxuenak osatzeak egungo LGSarekin parekatu arte, hasiera batean, eta 1.080 eurora iritsi arte, bigarren fase batean. Azterlan horretan egungo pentsio sistema publikoaren joeren balorazioa eginen da"».

Zioak: Zuzenketa hau Gobernuarekin lortutako aurrekontu akordioaren barruan dago. Beharrezkoa da Nafarroako pentsiodunen egoerari buruzko datu errealak izatea eta aztertzea zer eragin izanen lukeen aurrekontuetan pentsio baxuenak osatzeak egungo LGSarekin parekatu arte, hasiera batean, eta 1.080 eurora iritsi arte, hori baita Europako Gutun Sozialak gomendatutako gutxienekoa. Horrekin lotuta, beste zuzenketa aurkeztu da 20.000 euroko zenbatekoa jasotzen duena aipatu azterlana finantzatzeko.

24. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
ETA **GEROA BAI**
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA **PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

«Hamahirugarren xedapen gehigarria. Enpresa handietan inbertitzeagatiko dirulaguntzak

Aurrekontuaren zuzendari nagusiaren apirilaren 8ko 134/2019 Ebazpenaren bidez 2019ko Gastuen Aurrekontuan sarturiko krediduak, "810007 81210 7701 422206 Industrian inbertitzeko dirulaguntzak. Nafarroako 2014-2020 EGEF PE" eta "810007 81210 7701 422206 partida, Industrian inbertitzeko dirulaguntzak" partidei buruzkoak, ezin izan badira 2019an aplikatu, berriro sartu ahalko dira 2020ko aurrekontu ekitaldian aplikatu ahal izateko».

Zioak: 2019an Industria Sustatzeko Zerbitzuan izapidetutako dirulaguntza-espedienteak ordaintzeko sarturiko kredituen zati bat ezin izan da 2019an aplikatu. Nafarroako Ogasunari buruzko Foru Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, "kreditu inkorporatuak inkorporaziorako baimena eman den aurrekontu ekitaldian baizik ez daitezke erabil, salbu eta foru legez beste zerbait ezarri bada". Horrenbestez, beharrezkoa da xedapen gehigarri hau Aurrekontuen Foru Legeari gehitu eta aurrekontu kreditu horiek 2019koa baino geroagoko ekitaldi batean aplikatzea gaitzea.

25. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
ETA **GEROA BAI**
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA **PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa.

«Azken xedapenetan bigarrena bis.

Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea.

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 3.quater artikuluak honako testu hau izanen du 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera:

"3. quater artikulua. Etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko kenkari fiskalen sistema.

1. Etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko kenkari fiskalek, foru lege honen 3. bis artikuluaren 2. apartatuak aipatutakoek, honako modalitate hauek edukiko dituzte:

a) Emantzipaziorako errentamenduagatiko kenkaria: Nafarroan erroldatutako 23 eta 31 urte artekoentzat (biak barne) izanen da, baldin eta haien errentak, salbuetsiak barne, ez badira 20.000 euro baino gehiagokoak, eskatzailea familia-unitate bateko kidea ez izanez gero; edo, bestela, 30.000 euro baino gehiagokoak ez badira, familia-unitateko kide guztien errentak batera hartuta.

Horretarako, kontuan hartuko da zein diren lortutako diru-sarrerak, adieraziak zerga-oinarriaren zati orokorraren eta errenta salbuetsien batura gisa, halako zergaldian lorturikoak non pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenak aurkezteko epe arrunta amaitu baita kenkariaren ordainketa aurreraturako eskaera eginiko datan.

b) Etxebizitza eskuratzeko errentamenduagatiko kenkariak: Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA) adierazlearen 1,7 halako baino familia-dirusarrera haztatu txikiagoak dituzten pertsonentzat edo familia-unitateentzat, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a') Etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan inskribaturik egotea urtebeteko edo gehiagoko antzinatasun etengabearekin, urte natural bakoitzaren urtarrilaren 1ean, errentamenduaren edo erosketa-aukeradun errentamenduaren modalitatean; hori ez da eragozpena izanen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren hogeita zazpigarren xedapen iragankorrean 2020. urterako ezarritakorako.

b') Gizarteratze-etxebizitzen Programako onuradunak izatea, errentamenduan, urtebeteko edo gehiagoko antzinatasunarekin, urte natural bakoitzaren urtarrilaren 1ean.

c') Etxebizitza babestu baten errentaria izatea, urte natural bakoitzaren urtarrilaren 1ean. urtebeteko edo gehiagoko antzinatasuna duen administrazio-bisako kontratua dutenean.

Diru-sarrerak eta haien haztatzea kalkulatzeko, aplikatuko da Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren II. eranskinean, edo haren ordezko arauan, xedatutakoa, eta kontuan hartuko zer errenta izan diren lortuak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenak aurkezteko epea kenkariaren ordainketa aurreraturako eskaeraren datan amaitu deneko zergaldian.

2. Kenkari bakoitzaren baldintzak eta zenbatekoak, bai eta haiek modu aurreratuan ordaintzeko ezartzen diren epeak ere, modalitate bakoitzean desberdinak izan ahalko dira, bai eta modalitate beraren barruan desberdinak ere.

3. Kenkari-modalitate desberdinak elkarrekin bateraezinak izanen dira; halaber, bateraezinak izanen dira honako hauekin: etxebizitza alokatzeagatiko kenkariarekin, zeina Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62.2 artikuluan ezarrita baitago; Nafarroako Gobernuak alokairu-gastuen ordainketarako emandako larrialdiko laguntzekin edo laguntza bereziekin, etxebizitza berari dagozkionean; eta etxebizitza babestuak edo Alokairu Poltsari atxikitakoak errentamenduan hartzeko aurreikusitako diru-laguntzekin.

4. Etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko kenkari fiskalen sistema kudeatuko da etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsua kudeatuko duen sozietate publiko instrumental beraren bidez. Aurrekoa gorabehera, etxebizitzaren gaietan eskumena duen zuzendaritza nagusiari dagokio kudeaketaren ondoriozko egintzak eta ebazpenak ematea”».

Zioak: Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko Foru Legearen 3. quater artikulua aldatzen da.

EmanZipa eta DaVid programen betekizunak lege-mailako bi arautan jasotzen dira:

1.- Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea.

2.- Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina aldatu denez, zuzenketa honek Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko Foru Legeari dagokion zatia aldatzea proposatzen du.

Araudiaren ikuspuntutik, ulertu beharko litzateke Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko Foru Legearen testu indardunaren ondotik PFEZari buruzko Foru Legean onetsitako aldaketak baliozkoak direla eta indarrean daudela ondorio guztietarako.

Hala ere, badirudi komenigarria dela arauak behar bezala koordinatzeko, bai eta arauek ekarri behar duten argitasunerako ere, bi foru lege horiek EmanZipa eta DaVid planetako kenkariak eskuratzeko eta aplikatzeko baldintza berberak jasotzea.

Hori dela eta, Etxebizitzarako Eskubideari buruzko Foru Legean EmanZipara sartzeko adinaren aldaketa jasotzen da, 30 urtetik 31 urtera pasatuz, eta DaVid programari dagokionez, ezartzen da baldintzak ere beteko direla etxebizitza babestu baten errentariak badira, betiere urte natural bakoitzeko urtarrilaren 1ean administrazioak bisatutako kontratua badute. Gainera, 2 urtetik urtebetera murriztu da errentamendu bidezko gizarteratze-etxebizitzen programaren onuradun izateko baldintza.

26. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa.

«Azken xedapenetan zazpigarrena bis.

Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legearen aldaketa.

Ez dira egoitza-baliabide iraunkortzat joko, errenta bermatuaren hartzaile izateko baldintzak betetzeari dagokionez, halako baliabideak non bertan elkarbizitzen ari diren pertsonek partekatu egiten baitituzte baliabidearen mantentzerako eta bertako maizterren mantenurako ordaindu beharrekoak diren gastuak».

Zioak: Gaur egungo araudiak kanpoan uzten ditu baldintza horietan dauden pertsonak, emakumezko erlijioso erretiratuak normalki, bizitzeko kostuak beren gain hartu behar dituztenean.

27. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
ETA **GEROA BAI**
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA **PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa.

«Azken xedapenetan zortzigarrena bis.

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko Foru Legearen 26. artikulua aldatzea.

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 26. artikulua honela geratuko da idatzita:

"26. artikulua. Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsua.

1. Etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak, zehazten dituen bitarteko propioen edo besterenen bidez, zentsu bat sortu eta eguneraturik eramanen du, helburu hauekin: etxebizitza babestuak esleitzea; etxebizitza babestuaren eskariaren eta sustapenen gaineko datuak eta baremoei buruzko informazioa zentralizatzea; eta, orobat, etxebizitza arloan azterlanak, proposamenak eta proiektuak prestatzeko interesgarri izan daitezkeen datuak biltzea. Datu horiek erabiliko dira higiezinen merkatuko eskariaren bilakaera eta merkatu horren egoera aztertzeko, foru lege honen hirugarren xedapen gehigarrian ezarritako ondorioetarako.

2. Zentsuaren kudeaketaz arduratuko den entitateak, foru lege honen 37. artikuluan arautzen den webgunearen bidez, jendaurrean jarriko ditu sustapen bakoitzean egindako erreserbei buruz eskueran dituen informazioak, baremoak, etxebizitza kopurua, etxebizitzak emateko aurreikusitako datak eta sustapenaren beste ezaugarri batzuei buruzko argibideak. Datu horiek etengabe eguneraturik eta eskueran edukiko dira abian diren sustapen guztietarako"».

Zioak: Zentsuaren kudeaketa Administrazioaren bitarteko propioen bidez nahiz besteren bitartekoen bidez egin ahalko da, eta ez ente instrumental bat bezalako bitarteko propioen bidez bakarrik.

28. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
ETA **GEROA BAI**
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA **PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa.

«Azken xedapenetan zortzigarrena bis.

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 13. artikulua aldatzea.

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 13. artikulua honela geratuko da idatzita:

"13. artikulua. Etxebizitza hutsak alokatzeko bitartekotza publikorako programa: Alokairuen Boltsa.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek etxebizitza hutsen alokairua sustatuko dute.

2. Etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak zilegi izanen du etxebizitza hutsak merkatuko prezioetan bereganatzeko, dela errentan, dela erabilera-lagapenean, gero prezio babestuetan berriz alokatu edo erabilera-lagapenean uzteko, kasuko prezio-diferentziak ordainduz.

Kudeaketa bitarteko propioen nahiz besterenen bidez egin ahalko da, eta ez da aplikatzekoa izanen ente instrumental baten ardurapean uzteko erregelamenduzko betebeharra. Era berean, ente instrumental bati eginiko enkargua nahitaez egon

beharrari buruzko gainontzeko erreferentziak ez dira aplikatzekoak izanen.

3. Kudeaketa eginen da erregelamenduari eta artikulu honek ezarritakoari jarraikiz ezarriko diren baldintzen arabera.

a) Etxebizitza babestuaren eskaeraren arabera, Alokairuen Poltsan sartuko diren etxebizitzak zein herritakoak izanen diren zehazten ahalko da.

"b) Alokairu-poltsara sartu ahalko dira bizigarritasun-zedula duten etxebizitza erabiliak, baldin eta instalazio elektrikoa gaurkotuta badute eta haien gainerako instalazioak eta zainketa-egoera egokiak direla-eta alokairuan berehala jartzeko moduan badaude. Azken betebehar hori ken daiteke, kontuan harturik etxebizitzaren jabearen inguruabar pertsonalak edo ondasun higiezinen merkatuaren helburuak.

c) Etxebizitza errentan emateko ezarritako epea bukaturik, etxebizitzaren alokairua kudeatzeaz arduratzen den erakundeak jabeari itzuliko dio jaso zuen egoera berean eta maizterrik gabe, non eta jabeak ez duen adierazten maizterra hartzearekin ados dagoela.

d) Etxebizitza errentan emanen da babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritako prezioa gainditu gabe.

e) Etxebizitza arloko eskumena duen departamentuak diru-laguntza emanen die maizter diren pertsonei, babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritako baldintzekin, betebeharrekin eta prozedurekin"».

Zioak: Alokairu-poltsaren kudeaketa bitartteko propioekin nahiz besterenekin egin ahal izateaz gain, beharrezkoa da lege bidez jasotzea alokairu-poltsako maizterrei diru-laguntza eman behar zaiela babes ofizialeko etxebizitzetako maizterren baldintza beretan.

29. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
ETA **GEROA BAI**
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA **PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa.

«Azken xedapenetan bederatzigarrena bis. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea aldatzea.

2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako eraginekin, 66.6 artikuluaren bigarren eta bosgarren paragrafoek honako testu hau izanen dute:

"1., 2. eta 3. apartatuetan ezarritakoaren arabera egoki diren kenkariak izateko, beharrezkoa izanen da kenkarirako eskubidea sortzen duten plantillaren batezbestekoak, lan-kontratu mugagabea eta 27.000 euro baino gehiagoko soldata dutenenarenak, manten daitezela kenkaria sortu zuen zergaldia bukatu eta ondoko hogeita lau hilabeteetan zehar. Baldintza hori bete den zehazteko, hogeita lau hilabete horietako plantilla horien batezbestekoaren kalkulua hamabi hilabeteko ondoz ondoko bi alditan eginen da".

Aurreko paragrafoetan xedatutakoaren ondorioetarako, kenkaria aplikatu baldin bada plantillak mantendu beharreko hamabi hilabeteko bi aldietako edozein bukatu baino lehen, ordaindu beharko da desegoki aplikatutako zenbatekoa, kasuko berandutza-interesekin batera, hamabi hilabeteko aldi horiek bukatzen diren zergaldiei dagozkien aitorpenetan"».

Zioak: Zenbait zerga aldatu eta beste tributuneurri batzuei buruzko abenduaren 23ko 29/2019 Foru Legeak aldatu egin ditu 26/2016 Foru Legearen 66. artikuluaren 1. eta 2. apartatuak, halako moldez non lanbide arteko gutxieneko soldataren aipamenaren ordez kantitate finko bat ezartzen baita. Alabaina, aipatu artikuluaren 6. apartatuak, kenkariaren erregularizazioari buruzkoak, oraindik ere aipatzen segitzen du lanbide arteko gutxieneko soldata; horrenbestez, beharrezko gertatzen da hori aldatzea, testua artikuluaren gainontzekoari egokitzeko.

2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren kontu-sailei aurkezturiko zuzenketak

GASTUEN EGOERA-ORRIARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

Zuz. zkia.	Departamentua	Programa	Proiektua	Nork aurkeztua
30	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	010 Lehendakaritzaren eta Gobernu Irekiaren jarduera orokorrak	010001 Programaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	NA+

GEHITZEKO

Zenbatekoa	Kontu-saila
300.000	Gune publikoen irisgarritasunerako obrak. Desgaitasuna dutenei laguntzeko plana.

2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatuko da honekin:
gastu-murrizketa bat

Zuz. zkia.	Departamentua	Programa	Proiektua	Nork aurkeztua
31	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	010 Lehendakaritzaren eta Gobernu Irekiaren jarduera orokorrak	010001 Programaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	NA+

GEHITZEKO

Zenbatekoa	Kontu-saila
100.000	Informazio-materialak eta baimenetarako materialak sortzea, formatu irisgarrian. Desgaitasuna dutenei laguntzeko plana

2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatuko da honekin:
gastu-murrizketa bat

Zuz. zkia.	Departamentua	Programa	Proiektua	Nork aurkeztua
32	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	010 Lehendakaritzaren eta Gobernu Irekiaren jarduera orokorrak	010001 Programaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	PSN

GEHITZEKO

Zenbatekoa	Kontu-saila
28.000	Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 12/2018 Foru Legea

2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatuko da honekin:
diru-sarreren gehikuntza bat

Zuz. zkia.	Departamentua	Programa	Proiektua	Nork aurkeztua
33	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	010 Lehendakaritzaren eta Gobernu Irekiaren jarduera orokorrak	010001 Programaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	PSN Y EH BILDU

GEHITZEKO

Zenbatekoa	Orga.	Ekon.	Funtzional	Kontu-saila
10	01000	1000	921102	Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa.

2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatuko da honekin:
diru-sarreren gehikuntza bat

Zuz. zkia.	Departamentua	Programa	Proiektua	Nork aurkeztua
34	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	010 Lehendakaritzaren eta Gobernu Irekiaren jarduera orokorrak	010005 Gobernu Irekiaren Zerbitzua	NA+

ALDATZEKO

Zenbatekoa	Orga.	Ekon.	Funtzional	Kontu-saila
35.000	01700	2269	921100	Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren funtzionamendu gastuak

2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatuko da honekin:
gastu-murrizketa bat

35	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	010 Lehendakaritzaren eta Gobernu Irekiaren jarduera orokorrak					010005 Gobernu Irekiaren Zerbitzua	NA+
ALDATZEKO		**Zenbatekoa**	**Orga.**	**Ekon.**	**Funtzional**	**Kontu-saila**		
		30.000	01700	6094	921100	Gobernu Irekiaren garapenak		
2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatuko da honekin: gastu-murrizketa bat								
36	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	010 Lehendakaritzaren eta Gobernu Irekiaren jarduera orokorrak					010005 Gobernu Irekiaren Zerbitzua	NA+
ALDATZEKO		**Zenbatekoa**	**Orga.**	**Ekon.**	**Funtzional**	**Kontu-saila**		
		30.000	01710	2279	924904	NASERTICi egindako enkargua. Herritarrentzako arreta bulegoen kudeaketa		
2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatuko da honekin: diru-sarreren gehikuntza bat								
37	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	010 Lehendakaritzaren eta Gobernu Irekiaren jarduera orokorrak					010005 Gobernu Irekiaren Zerbitzua	EH BILDU
GEHITZEKO		**Zenbatekoa**	**Orga.**	**Ekon.**	**Funtzional**	**Kontu-saila**		
		50.000	01720	6020	325100	Partaidetzazko aurrekontuen diseinua eta prestakuntza		
2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatuko da honekin: diru-sarreren gehikuntza bat								
38	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	010 Lehendakaritzaren eta Gobernu Irekiaren jarduera orokorrak					010005 Gobernu Irekiaren Zerbitzua	PSN, GEROA BAI Y EH BILDU
GEHITZEKO		**Zenbatekoa**				**Kontu-saila**		
		40.000				Informatikako elkarreragingarritasuna, Gardentasunaren Kontseilua		
2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatuko da honekin: diru-sarreren gehikuntza bat								
39	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	020 Funtzio publikoa					020000 Programako jarduera orokorrak	PSN, GEROA BAI Y APF PODEMOS
GEHITZEKO		**Zenbatekoa**	**Orga.**	**Ekon.**	**Funtzional**	**Kontu-saila**		
		2.956.613	04000	4609	921400	Iruñeko Udaleko montepioei buruzko epaia		
2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatuko da honekin: gastu-murrizketa bat								
40	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	050 Barnearen zuzendaritza eta zerbitzu zentralak					050000 Barne-jarduera orokorrak	NA+
ALDATZEKO		**Zenbatekoa**	**Orga.**	**Ekon.**	**Funtzional**	**Kontu-saila**		
		20.000	02000	6094	131100	Administrazio-prozeduren modernizazioa		
2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatuko da honekin: diru-sarreren gehikuntza bat								

41	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	050 Barnearen zuzendaritza eta zerbitzu zentralak					050000 Barne-jarduera orokorrak	NA+
ALDATZEKO		**Zenbatekoa**	**Orga.**	**Ekon.**	**Funtzional**	**Kontu-saila**		
		10.000	02900	2276	131100	Nafarroako tokiko polizientzako laguntza eta haien koordinazioa. Segurtasun Publikoaren sistema		
2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatuko da honekin: gastu-murrizketa bat								
42	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	051 Herritarren segurtasuna					051000 Foruzaingoa	NA+
ALDATZEKO		**Zenbatekoa**	**Orga.**	**Ekon.**	**Funtzional**	**Kontu-saila**		
		10.000	02100	2279	132106	Prestakuntza		
2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatuko da honekin: diru-sarreren gehikuntza bat								
43	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	051 Herritarren segurtasuna					051000 Foruzaingoa	NA+
